

7. Funtsezko baliabideak

Hasiera batean, GANVI enpresako oinarritzko baliabideak honela banatuko dira: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak. Baina enpresa arrakasta lortzekotan eta zabaltzekotan instalakuntzarako langile gehiago eta operadoreak kontratatuko dira . Hala bada, geroago lokal gehiago edo handiago bat alokatzea posiblea da.

Alde batetik, Zallan 420 metro karratuko lokala alokatuko dugu. Bertan, bezeroak jasoko dira eta material guztia biltegian gordeko da. Gainera, kamioi bat erabiliko da gure langileek panelak garraia eta instalakuntza-zerbitzua eskain dezaten.

Baliabide intelektual printzipalak idazkari bat, instalakuntzarako langileak eta enpresako buruak izango dira. Idazkariak telefono deiak, posta elektronikoa eta webgunea administratuko ditu. Instalakuntza langileek, berriz, kamioiarekin bezeroaren propietate pribatura mugituko dira eta panelak instalatuko dituzte.

Bestalde, giza baliabideen kudeaketarako langileak kontratatuko dira. Hauek enpresako langileen hautapen-prozesua burutuko dute. Hau da, lanpostuak zehatz definituko dituzte, ordainsariak ezarriko dituzte eta lan-segurtasuna bermatuko dute besteak beste.

Enpresa finantzatzeko erabiliko dugun baliabide nagusia kreditu bat izango da. Kreditua epeka izango da, alegia, bezeroek guri kobratzen diguten heinean ordainduko dugu kreditua. Kreditua finantzarako diruaren hiru laurden izango dira. Berriz, gainontzekoa bazkideek jarriko dute.